



**IRIZPEN ZK.: D17-026**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK AZTERLETA EPIDEMOLOGIKO BAT EGIN DEZAN, ALDUNDIARI UDAL ERROLDAKO DATUAK LAGATZEARI BURUZKO IRIZPENA**

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA.-** Gipuzkoako bi udalek irizpen bat eskatu diote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, argitzeko ea ondo ezkontzen den datu babesari buruzko araudiarekin Gipuzkoako Foru Aldundiak egin dien eskabidea, udal horiek eman diezaioten bakoitzak bere udalerriko biztanleen udal errolda honako datuekin: biztanleen izenak eta bi abizen, sexua eta helbidea, jaiotze-data eta harremanetarako telefonoa. Datu pertsonalak eskatzeko arrazoia da Gipuzkoako Lurralde Historikoko zenbait udalerritako populazioaren azterketa epidemiologiko bat egin dezan, Gipuzkoako Ingurumen Gune Berriko balorizazio energetikoko planta dela eta.

**BIGARRENA.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari informazio osagarria eskatu zitzaion datu-lagatzeari buruz, eta Aldundiak idazki bat bidali zuen honakoa adieraziz:

*“Departamentu honetako diputatuaren 2017ko uztailaren 3ko 10H48/17 Foru Aginduaren bidez esleitu zen Gipuzkoako Ingurumen Gunearen parte den balorizazio energetikoko plantan buruzko azterketa epidemiologiko bat egiteko laguntza zerbitzuaren kontratua.*

*Esleitutako azterketaren helburua da balorizazio energetikoko planta martxan jarri aurretik osasun publikoa ebaluatzea. Hainbat urte iraungo duen prozedura hori BIODONOSTIA Institutu Elkarteak gauzatuko du. Kontratuaren esleipendun den heinean, BIODONOSTIAk ezarri ditu azterketa gauzatzeko parametro zientifikoak, eta hark izango du eskatutako datuetarako sarbidea ere.*

*Hortaz, departamentu honetako Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak du azterketa epidemiologiko hori egiteko beharrezko datuen tratamenduaren ardura; BIODONOSTIA Institutu Elkarteak, ostera, utziko zaizkion datu pertsonalen tratamenduaren ardura izango du, eta datu horiek eskuratuko ditu soilik hautagai potentzialekin komunikatzeko eta azterketaren xede publikoa zehazteko; utzitako gainerako datuak deuseztatu egingo dira.*

*Ondoren, hautatutako pertsonak baimen informatu bat sinatu beharko dute aurrez eta borondatez, parte hartzea baliozkotzat jotzeko”.*

Idazkiari atxikita I., II., III. eta IV. eranskinak bidali ditu Aldundiak. Datu babesari buruzko araudia betetzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak burutu dituen izapideen kopiak dira.



**HIRUGARRENA.-** Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.*

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

## KONTUAN HARTZEKOAK

### I

DBEBri galdetu diote ea ondo ezkontzen den datu babesaren arloko araudiarekin biztanleen udal errolda bidaltzea Ingurumena eta Obra Hidraulikoak Departamentura, azterketa epidemiologiko bat egiteko Gipuzkoako Ingurumen Gune Berriko balorizazio energetikoko planta dela eta.

Kontsultak aipatzen duen datu transmisioak datu pertsonalak lagako direla esan nahi du, eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 3 i) artikuluan dago jasota zer den datu lagatzea: *“interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea”.*

Datu pertsonalen komunikazioen bete behar duten erregimen orokorra DBLOren 11. artikuluan dago jasota eta interesdunak adostasun adieraztea dela dio arau orokorra (11.1 artikulua). Hala ere, 11. artikulua 2. zenbakiak arautzen du zein salbuespen dituen ukituaren adostasunaren beharrak. Horietako bat da *“a) Lege batek baimentzen badu lagapena”.*

Horrek esan nahi du erroldako datuak lagatzeari buruzko lege erregimenari begiratu behar diogula. Hona Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.3 artikulua xedatzen duena:

*“3. Erroldako datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko interesdunaren adostasunik gabe, datu horiek nahitaezkoak izan behar dira administrazio horiek euren eskumenez baliatu ahal izateko, eta bakar-bakarrik lagako zaizkie helbidearen edo egoitzaren gaineko datuak ezinbestekoak badira. Datu horiek sekretu estatistikopean dauden estatistika ofizialak egiteko ere erabili ahal izango dira, beti ere Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legean eta arlo honetan eskumena duten autonomia erkidegoetako estatistikari buruzko legeetan xedatutakoa kontuan hartuta”.*

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.3 artikulua da DBLOren 11.2a) artikulua aipatzen duen “legea”, hau da, horrek baimentzen du administrazio publikoei lagatzea, interesdunen adostasunaren beharrik gabe, udal erroldako datu pertsonalak, baldin eta informazio hori funtsezkoa bada lagapen-hartzaileak bere eskumenak egikaritzeko, eta baldin eta egoitza edo helbidea garrantzitsuak diren gaietarako badira.

Beraz, administrazio publiko eskatzaileak arrazoitu egin beharko dio udalari zer egin nahi duen errolda datu horiekin eta nola uztartzen den egin nahi duena lege ordenamenduak



esleitzen dizkion eskumenetako batean, berariaz adieraziz zein lege-xedapenetan dagoen jasota.

Aztertzen ari garen kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak azaldu du udal erroldako datuak eskatu dituela Hondakinei buruzko 2008ko azaroaren 19ko 2008/98/EB Zuzentaraua aintzat hartuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 74. artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36. artikulua xedatutakoarekin bat.

Ez dago zalantzarik Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Foru Organoak lurralde historikoaren barruan udal jarduerak koordinatzeko eskumena duela hiri-hondakin solidoen arloko zerbitzua modu integralean emateko, eta hondakinak kudeatzeko udalaz gaindiko azpiegiturak sustatzeko eskumena ere baduela.

Horrez gain, argi dago Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/98/EE Zuzentarauak Estatu kideei ezarri ziola betebeharra hartzeko behar diren neurriak ziurtatzeko hondakinen kudeaketa egiten dela pertsonen osasuna arriskuan jarri gabe eta ingurumena kaltetu gabe, eta, batez ere, arriskurik eragin gabe urari, aireari, lurrazalari, faunari eta florari; zarata eta usain deserosorik eragin gabe; eta interes berezia duten paisaiak eta tokiak arriskuan jarri gabe. 2008/98/EE Zuzentaraua, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen bidez ekarri zen barneko lege ordenamendura.

Arau-esparru horrekin bat, ingurumen arloko agintaritzek, bakoitzak bere eskumen esparruan, nahitaez hartu beharko dituzte giza osasuna eta ingurumenarena bermatzen duten neurriak hondakinen kudeaketaren arloan.

Kasu honetan, bidali diguten informazioak dioenez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumena eta Obra Hidraulikoak Departamentuak azterketa epidemiologiko bat kontratatu du, eta azterketaren helburua da balorizazio energetikoko planta martxan jarri aurretik osasun publikoa ebaluatzea. Hori egiteko, Departamentuak hainbat udaletako erroldak eskatu ditu Biodonostia Institutu Elkarteak —Elkarte hau da azterketaren esleipen-hartzailea eta datu tratamenduaren eragilea — ezarritako parametro zientifikoak kontuan hartuta, soilik azterketako hautagai potentzialekin komunikatzeko; eta, gerora, 220 pertsona inguruko publiko objektiboa aukeratu ostean, gainontzeko pertsona guztien datuak suntsituko ditu, eta bakar-bakarrik mantenduko ditu hautatutako pertsonen artetik azterketan borondatez parte hartu nahi dutenena, beti ere aldeztu aurretik pertsona horiengandik berariazko adostasun informatua eskuratuta.

Gauza jakina da hondakinak kudeatzeko sistemek hainbat alderdi hartu behar dituztela kontuan: ekonomikoak, ingurumenekoak, osasun publikokoak eta abar. Logikoaenez, biztanleriaren osasunerako arriskutsuak ez diren hondakinak kudeatzeko sistemak ezarri beharko dira, eta ingurumen eta osasun agintaritzek zaintza planak eta funtzionamendua gainbegiratzeko mekanismoak ezarri beharko dituzte, bermatzeko ingurumenean eta populazioaren osasunean duten eragina kontrolpean dagoela.

Edozelan ere, osasun administrazioek dute populazioaren osasuna zaintzeko eskumena, eta haien zeregina da haien lurralde esparruan giza osasunean modu positiboan ala kaltegarrian eragiten duten prozesu epidemiologikoak ikertzea, zaintzea eta aztertzea. Horregatik, eta gu ez garenez gai honetako adituak, kontu handiz esan behar dugu arreta deitzen duela Gipuzkoako Foru Aldundia izatea erroldako datuak eskatu dituen eta



azterketa epidemiologikoa bat egiteko eskatu izana, ingurumen organoa delako eta osasun publikoarekin zer ikusirik ez duten eskumenak aldarrikatuz.

Beraz, hori kontuan hartuta esan behar da DBLOren 16.3. artikulua ez duela erabateko gaikuntza ematen, administrazio publikoei biztanleen erroldako datu pertsonalak modu masiboan eta indiskriminatuan lagatzeko. Hain zuzen ere, kontrakoa gertatzen da: proportzionaltasuna eskatzen du, eta agintzen du nahitaez arrazoitu eta egiaztatu behar dela eskatzen dituzten datuak ezinbestekoak direla lortu nahi den helburu zehatz eta jakina lortzeko kasuan kasuan; eta fitxategiaren arduradunari agintzen dio eskabidea ebatzi aurretik behar bezala ponderatzeko.

Hala dela berretsi du Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 31ko 17/2013 Epaiak, TAOLen 16.3 artikulua inpugnazioa ezesteari buruz dioelako, artikulua horrek xedatzen duenaren arabera, administrazio publikoen arteko datu lagatzeak nahitaez izan behar direla interes publikoko helburuak betetzeko eta esleituta dituzten eginkizunetarako baino ez; eta kasu guztietan arrazoitu egin behar da. Hori dela eta, administrazio organoek esleituta dituzten eginkizunak betetzeko behar direnak baino datu gehiago ez dira lagako. Eta garrantzitsutzat jotzen diren datuak arrazoitu egin beharko dira, garrantzi handia duelako bereiztea, ea kasu zehatz baten eta egoera jakin baten gaineko azterketa eta jarraipena den ala titulartasun publikoko fitxategi batean dagoen informazio guztia modu irekian eta indiskriminatuan ematea den.

Kasu honetan foru administrazioak nahi du lagatzea Gipuzkoako Ingurumen Gune Berriko balorizazio energetikoko plantaren inguruko hainbat udalerritako biztanle guztien izenak eta bi abizen, sexua eta helbidea, jaiotze-data eta harremanetarako telefonoa, azterketako hautagai potentzialekin komunikatzeko (700 lagun inguru. Hala dago jasota behintzat txostenean), eta 220 pertsona inguruko talde bat finkatzeko, azterketan borondatez parte hartu nahi dutenekin. Gainontzekoen datuak suntsitu egingo dira.

Esan behar da helburu horretarako biztanle guztien datu pertsonalak komunikatzea, azken finean dela datu pertsonalak modu masiboan lagatzea bezala, eta hori ez da ondo ezkontzen DBLOren 4. artikuluan xedatutako datuen kalitatearen printzipioarekin; izan ere, printzipio horren proportzionaltasunaren ikuspegiak dioenez, egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurrira mugatuak izango baitira, haien tratamenduaren helburuen arabera. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokor berriak ere jaso du printzipio hori 5.1 c) artikuluan: datuak minimizatzeko printzipioa da.

Era berean, esan behar da, TAOLen arabera, administrazio publikoei komunikatu ahal zaizkien erroldako datuak mugatuta daudela, eta oro har honako baino ezin direla utzi: izen-abizenak eta helbidea. Eta ezin direla laga erroldan dauden datu guztiak, adibidez, telefono zenbakia; izan ere, datu hori erroldan jasotzen den arren, borondatezkoa delako. Gainera, EUSTATen bidez ere ezin da lortu telefonoaren datua, nahiz eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen bigarren xedapen gehigarriari heldu. Gainera, horrek eskatuko lioke foru administrazioari biztanleei buruzko erregistro edo fitxategi bat sortzea, legeak ezarritako baldintzen eta betekizunen arabera.

Aurreko guztiarekin bat, ondorioztatu behar dugu kasu honetan datuen kalitatearen printzipioa ezarri gero, ezin dela, gure ustez, foru administrazioak nahi dituen erroldako datuak laga. Horregatik guzti horregatik, eta badakigu ere zein metodologia erabili behar



duzen balizko hautagaiak hautatzeko, uste dugu aztertze kontua dela ea ez den posible balizko hautagaiei azterketa epidemiologikoaren berri ematea, baina pertsona horien datu disoziatuak erabilia. Hala eginez gero, ez zelako beharrezkoa izango datuak babesteko legediak ezarritako baldintzak eta bermeak betetzea, datuak anonimizatuta leudekeelako. Hori da modu bakarra Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren ardurapeko "Hondakinak kudeatzea eta osasuna" fitxategiaren aurreikuspenak ondo egoteko, hain zuzen ere, fitxategiak dioelako datuak interesdunengandik jasotzen direla.

Azkenik, azpimarratu beharrea gaude datu pertsonalak tratatzeko (bildu, gorde, datuak komunikatu...), DBLO garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Erregelamenduak ezarritako neurri tekniko eta antolakuntzako neurri guztiak bete beharko direla, datuen segurtasuna bermatu beharko dela eta neurriak hartu ez daitezela galdu edo baimenik gabeko tratamendua edo atzipen gertatu. Datu horien tratamendu-eragileak ere berdin bete beharko ditu neurri guzti horiek.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urriaren 31